OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

**2022KO UZTAILAREN 28an EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.**

**ACTA DEL PLENO ORDINARIO CELEBRADO EL 28 DE JULIO DE 2022.**

**Olaberrian, 2022ko uztailaren 28an, arratsaldeko 14:00ak izanik Udaletxeko Pleno Aretoan bildu dira alkatea den Jokin Garmendia Asurabarrena eta Nerea Castaño Irazola, (O.E.O), Irene Irastorza Asurabarrena (O.E.O) , , Aitor Urkiola Ugartemendia (EH-BILDU) y Pedro José Jauregui García (EH-BILDU) zinegotziak.**

**En Olaberria, a 28 de julio de 2022, siendo las 14:00 horas se han reunido en el Salón de Plenos del Ayuntamiento el alcalde, Jokin Garmendia Asurabarrena y l@s concejales, Nerea Castaño Irazola, (O.E.O), Irene Irastorza Asurabarrena (O.E.O), Aitor Urkiola Ugartemendia (EH-BILDU) y Pedro José Jauregui García (EH-BILDU).**

**Ezin etorria adierazi dute Maider Agirre Mugikak (O.E.O) eta Elixabet Canales Segurolak (O.E.O)**

**Excusan su asistencia Maider Agirre Mugika (O.E.O) y Elixabet Canales Segurola (O.E.O).**

**Bertan dago eta fede ematen du Iñaki Alonso Antolin Idazkari Kontu-hartzaileak.**

**Asiste y da fe del acto el Secretario-Interventor Iñaki Alonso Antolin.**

**Osoko Bilkura legez osatzeko beharrezkoa den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztatu ondoren,** Udalbatzak gai-zerrendako lehen gaia aztertzeari ekin dio.

**Comprobado que asiste el número suficiente de concejales para la válida constitución de la Sesión Plenaria** se pasa a estudiar el primer asunto del orden del día.

**AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONARPENA, HALA BADAGOKIO.**

**APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ACTA DE LA SESIÓN ANTERIOR.**

- 2022ko maiatzaren 26an ospatutako Ohiko Osoko Bilkurari dagokion Akta.

- Acta correspondiente al Pleno Ordinario de 26 de mayo de 2022.

Bozketa egin ondoren, akta hauek aho batez onartu dira.

Tras efectuar la votación, este acta resulta aprobada por unanimidad.

**ALKATETZAKO GAIAK**

**TEMAS DE ALCALDÍA**

**Alkatetza ebazpenen berri ematea.**

Alkate jaunak dio joan zen batzorde informatzaileetan aurreko Osoko Bilkuratik aurrera emandako Alkatetza-Ebazpenen inguruko azalpena eman zela, 101/2022tik 153/2022 bitartera.

**Dar cuenta de los Decretos de Alcaldía.**

El Sr. Alcalde informa de que se dio cuenta en la pasada comisión informativa de los Decretos de Alcaldía adoptados a partir del último Pleno Ordinario, es decir, del 101/2022 al 153/2022.

## OGASUNA ETA UDAL ZERBITZU TEKNIKOAK

## HACIENDA Y SERVICIOS TÉCNICOS MUNICIPALES

**3.000 eurotik gorako fakturen onarpena.**

Hauek dira Osoko Bilkurara aurkezten diren fakturak, bere onarpenerako:

**Aprobación de las facturas superiores a 3.000 euros.**

Estas son las facturas que se presentan al Pleno para su aprobación:

| ZKIA | IZENA | AZALPENA | KOPURUA |
|---|---|---|---|
| 1 | GUREAK BERDEA | LORAZAINTZA MAIATZA | 4.104,36€ |
| 2 | LIMPIEZAS ABANDO | GARBIKETA MAIATZA | 5.541,72€ |
| 3 | ZIUR S.L. | IGERILEKUKO LURZORUA | 8.954,00€ |
| 4 | IZFE S.A. | KOSTO INFORATIKOAK | 5.586,57€ |
| 5 | E. IGARTUA S.L.U. | C.DE LA CRUZ URBANIZAZIOA | 5.937,95€ |
| 6 | E. IGARTUA S.L.U. | PIREP DOKUMENTAZIOA | 15.972,00€ |
| 7 | SOROA ARQUITECTOS | C.DE LA CRUZ URBANIZAZIOA | 7.072,05€ |
| 8 | GIPUZKOAKO URAK | UR HORNIDURA | 52.804,64€ |
| 9 | GIPUZKOAKO URAK | UR HORNIDURA | 14.296,03€ |
| 10 | KROHNE S.L.U. | UR SAREKO EKIPOAK | 14.277,50€ |
| 11 | AXA | R.C. ASEGURU POLIZA | 3.568,93€ |
| 12 | SASOI S.L. | C. DE LA CRUZ URBANIZAZIOA | 122.801,75€ |
| 13 | MAUKA S.L. | NEOMAK | 4.235,00€ |
| 14 | GUREAK BERDEA | LORAZAINTZA EKAINA | 4.104,36€ |
| 15 | IMPEKABLES ELK. | ZOPILOTES TXIRRIAOS | 5.900,00€ |
| 16 | VALECEA S.L. | SU ARTIFIZIALAK | 3.000,00€ |
| 17 | LIMPIEZAS ABANDO | GARBIKETA EKAINA | 6.048,32€ |
| 18 | EIHERA KOOP. ELK. | BERDINTASUNA | 4.360,00€ |
| 19 | ZERKI KOOP.ELK. | IGERILEKUAEN KUDEAKETA | 6.655,00€ |

| | | |
|---|---|---|
| 20 AUPA KULTUR LANAK | MUSIKA TALDEAK | 3.388,00€ |
| 21 GERTU | ARGAKI ZAHARRAK | 5.665,68€ |
| 22 C. ITURRIOZ S.A. | TIRO PLATO BOTATZEA | 26.431,12€ |
| 23 LAIA S. COOP | AHOLKULARITZA | 4.658,50€ |
| 24 EXC. GAÑERA S.L. | IHURREKO TXABOLA BOTATZEA | 5.263,50€ |
| 25 GOIERRIKO TRESNA KOOP. | DESBROZATZE LANAK | 6.449,30€ |
| 26 MATTIN GIZARTE ABENTURA | UDALEKUAK | 7.777,47€ |

Azkeneko hiru faktura (24., 25. eta 26. zenbakidunak) uztailaren 14ko Batzordearen bileraren ondoren jaso da Udal honetan, eta, beraz, ez da aldeko irizpenik eman. Horregatik, Alkateak zerrenda honetan sartzea proposatzen du, urgentziazko arrazoiengatik. Sarrera hori bozkatu da, eta aho batez onartu da.

La tres últimas facturas (números 24, 25 y 26) han sido recibidas en este Ayuntamiento con posterioridad a la Comisión celebrada el día 14 de julio, por lo que la misma no ha sido dictaminada favorablemente. Por ello al Alcalde propone su inclusión en esta relación por motivos de urgencia. Sometida a votación esta inclusión, resulta aprobada por unanimidad.

Hogeita sei fakturako zerrenda hau onartzeko proposamena bozkatu da, eta gehiengo osoz onartu da, Osoko bilkurara bertaratu diren O.E.O. taldeko hiru zinegotziek aldeko botoa eman dute, eta EH-BILDU taldeko bi zinegotziek abstentzioa.

Se procede a la votación de la propuesta de aprobación de esta relación de veintiséis facturas, resultando aprobadas por mayoría absoluta, con el voto favorable de los tres concejales del grupo municipal O.E.O. asistentes al pleno y la abstención de los dos concejales del grupo EH-BILDU.

**Diruzaintzaren egoera: informazioa.**

Udal-kideei, 2022ko uztailaren 8ri dagokion diruzaintzaren egoera aurkeztu zitzaien joan zen batzorde informatzailean.

Udalak, kutxan, banketxe ezberdinetako kontuetan eta epe laburrera eginiko inbertsioen artean, guztira **5.352.629,12 euro** ditu.

Udalbatzako kideak jakinaren gainean gelditzen dira.

**Situación de tesorería: información.**

Se presenta a los corporativos en la pasada comisión informativa la situación de tesorería a fecha 8 de julio de 2.022.

El Ayuntamiento dispone entre la caja, las cuentas en las distintas entidades y las inversiones a corto plazo, un total de **5.352.629,12 euros.**

Los corporativos quedan al corriente.

- **Udal honen eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuaren arteko datu-lagapenaren arloko lankidetza-hitzarmena onartzea.**

Udal honek eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak datuak lagatzeko lankidetza-hitzarmenaren proiektuaren berri eman zaio Udalbatzari. Hitzarmen honen xedea da zehaztea zer-nolako muga eta baldintza orokorrek arautuko duten Ogasun eta Finantza Departamentuaren eta hori izenpetzen duten Gipuzkoako udalen arteko informazio truke aldebikoa eta beren informazio sistemetarako elkarri emango dieten sarbidea. Sinatzaileek hitzarmenarekin bete nahi duten helburua da beraiei esleitutako zereginak gauzatzeko beharrezkoa duten informazioa eskuratzea.

Gai horren berri eman zitzaien udalkideei uztailaren 14an egindako informazio-batzordean, eta horren aldeko irizpena jaso zen.

Hori guztia ikusita, Udalbatzak aho batez, aipatutako lankidetza-hitzarmena onartzea eta alkateari hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea erabaki du.

- **Aprobación del convenio de colaboración en materia de cesión de datos entre este Ayuntamiento y el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.**

Se da cuenta al Pleno del proyecto de convenio de colaboración en materia de cesión de datos entre este Ayuntamiento y el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa. El objeto del mismo es establecer los términos y condiciones generales que han de regir el intercambio bilateral de información y el recíproco acceso a sistemas de información entre el Departamento de Hacienda y Finanzas y cada uno de los Ayuntamientos de Gipuzkoa que lo suscriban. La finalidad del convenio para los suscribientes es obtener la información necesaria para el ejercicio de las funciones que tienen encomendadas.
Se dio cuenta de este tema a los corporativos en la comisión informativa celebrada el 14 de julio, recibiendo el dictamen favorable de la misma.

En vista de todo ello el Pleno del Ayuntamiento acuerda, por unanimidad aprobar el mencionado convenio de colaboración así como facultar al Alcalde para la firma del mismo.

## HIRIGINTZA

**14.1 HEaren xehetasun-azterlana behin betiko onarpena. «Hornitegia».**

Jarraian, “Burger King Spain S.L.U.”k sustatutako 14. A.U. “Hornitegia” Eremuko

## URBANISMO

**Aprobación definitiva del Estudio de detalle de la A.U. 14.1.“Hornitegia”.**

Seguidamente se da cuenta al Pleno del expediente relativo al Estudio de Detalle

OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

Xehetasun Azterlanari buruzko espedientearen berri eman zaio Udalbatzari. Xehetasun-azterlan honek martxoaren 8ko 54/2022 Alkatetza Dekretuaren bidez hasierako onarpena jaso zuen. Onarpen horri buruzko iragarkiak sartu dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (50. zk., 2022ko martxoaren 15ekoa) eta "Noticias de Gipuzkoa" egunkarian (2022ko martxoaren 15koa) 20 egun balioduneko epean jendaurrean egonik. Epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu.

referente a la A.U. 14 “Hornitegia”, promovido por “Burger King Spain S.L.U.” y aprobado inicialmente mediante Decreto de Alcaldía 54/2022, de 8 de marzo. El mismo ha estado expuesto al público durante un período de 20 días hábiles, habiéndose insertado anuncios relativos a dicha aprobación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 50, de 15 de marzo de 2022, y en el periódico “Noticias de Gipuzkoa” de 15 de marzo de 2022. Durante dicho período no se han presentado alegaciones.

Xehetasun-azterlanaren aldaketa horrek Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuaren aldeko txostena du.

Este Estudio de Detalle cuenta con el informe favorable del Departamento de Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Maiatzaren 26an egindako osoko bilkuran, Xehetasun Azterlan hau behin betiko onartzeko epea etetea erabaki zen, URAren aldeko behin betiko txostena jaso arte.

En sesión plenaria celebrada el 26 de mayo se acordó interrumpir el plazo para la aprobación definitiva de este Estudio de Detalle, hasta que se recibiera el definitivo informe favorable de URA.

Uraren Euskal Agentziaren (URA) eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren behin betiko aldeko txosten hori espedientean jasota dago. Era berean, Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren eta udal zerbitzu teknikoen aldeko txostena du.

Este informe favorable definitivo de la Agencia Vasca del Agua (URA) y de Confederación Hidrográfica del Cantábrico obra ya en el expediente. Asimismo cuenta con el informe favorable del Consorcio de Aguas de Gipuzkoa y de los servicios técnicos municipales.

Gaia Udalbatzako kideei azaldu zitzaien aurreko informazio-batzordean.

Se expuso el tema a los corporativos en la pasada comisión informativa.

Hori guztia ikusita, espedientea osatzen duten dokumentuak aztertuta eta behar bezala eztabaidatu ondoren, bozketa egin da, eta honako erabaki hauek hartu dira, aldeko 3 botorekin (O.E.O.) eta kontrako 2 botorekin (EH Bildu):

En vista de todo ello y analizados los documentos que forman el expediente y tras debatirlo suficientemente, se procede a la votación siendo los siguientes los acuerdos adoptados por 3 votos a favor (O.E.O.) y 2 en contra (EH Bildu):

<u>LEHENENGO:</u> Behin betiko onestea 14, A.U

<u>PRIMERO</u>: Aprobar definitivamente el

"Hornitegia" eremuko ""Burger King Spain S.L.U."k sustatutako xehetasun-azterlana.

Estudio de Detalle referente la A.U. 14 "Hornitegia", promovido por "Burger King Spain S.L.U."

BIGARRENA: Xehetasun-azterketaren ale bat Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaltzea, plangintzaren administrazio-erregistroan sar dezan, 2/2006 Legearen 89 artikulua betez.

SEGUNDO: Remitir un ejemplar del Estudio de Detalle a la Diputación Foral de Gipuzkoa para su inclusión en el registro administrativo de planeamiento, en cumplimiento del art. 89 de la Ley 2/2006.

HIRUGARRENA: Behin betiko onarpen hau interesatuei jakinaraztea.

TERCERO: Notificar esta aprobación definitiva a los interesados.

Botoa azaltzeko txandan Aitor Urkiolak honako hau adierazten du:

El el turno de explicación de voto Aitor Urkiola manifiesta lo siguiente:

*14.1 HEaren xehetasun-azterlana behin betiko onarpena. «Hornitegia».*

*2005ean BECen lehen aldiz Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia jokatzea erabaki zen. Maialen Lujanbiok bota zuen sarrerako bertsoa etorri zaigu burura.*

*Pasa MaxCenter pasa Decathlon,*

*Ikea ta Bec azaldu,*

*Aurrez Baluarte, Tabakalera,*

*Eta Guggenheim zapaldu,*

*Mila miloien kultur eredu,*

*Negoziotik ez salbu,*

*Eskaparate dizdiratsua,*

*Nahiz ta oinarria saldu.*

*Gu ez gera hau denda txikiak,*

*Saio txikiak gara gu,*

*Gu ez gera frantses, gaztelera, ingles,*

*Gureak hots xumea du,*

*Baina ona etorri ta BECtetzeko,*

*Konplejurik ez daukagu. ( bis)*

*Zaila egiten zaigu horrelako proiektu bat herrian onartzea. Sensibleak gara gaiarekin eta exigentzi maila ere horretan daukagu. Plan orokorraren baitan udalaren aldetik zorroztasun guztia jartzea egokia izango zen baldintzak jartzeko garaian.*

*Jarduera guztia justifikatu behar dutela trafikoan duen inpaktuarekin, bezeroentzako sortzen dituzten aparkalekuekin ziurtatu behar dituzte langileentzako trafikoan izango duen eraginaren azterketa bat ere Hapoan sartuta behar zuela ere aipatu genuen eta duen garrantzia, Hapoa egiteko garaian, horrelako neurri eta baldintzak ezartzea.*

*Hizkuntza irizpideak, bertako langileen kontrataziorako herriko jendeari aukera ematea eta lan baldintzak duinak izatea bermatzea. Bertako okela gutxieneko bat eskaintzea, ea…*

*Udal bezela honen kontrako kanpaina bat egiten hasteko prest egongo ginateke? Jarraipena egin langileen lan balditzekin, janarien jatorrien  elikagaiekin? boicot kanpainak, herritarrei aldioro kontzientziatzea, horrelako guneetara juteak dakarren arriskuaz, bertako ekoiztaileentzako. Modu asko daude horrelako proiektu bati aurre egiteko edo behintzat saiatzeko.*

Horri dagokionez, alkateak galdetu dio ea EH Bildu Udal honetako Alkatetzan egon izan balitz, kontrako botoa ere emango zuketen, aurkeztutako txosten guztiak aldekoak direla jakinda.

Aitor Urkiolak erantzun du Alkatetzan egon izan balira zorrotzagoak izango zirela Hiri Antolamenduko Plan Orokorra onartzerakoan, eta baldintza zorrotzagoak jarriko zituztela horrelako jarduerak ahalbidetzeko.

A este respecto el Sr. Alcalde le pregunta si de haber estado EH Bildu en la Alcaldía de este Ayuntamiento, también hubieran votado en contra sabiendo que todos los informes aportados son favorables.

Responde Aitor Urkiola que de haber estado en la Alcaldía hubieran sido mas estrictos a la hora de aprobar el Plan general de Ordenación urbana y hubieran puesto unas condiciones mas severas para permitir este tipo de actividades.

## Kontratazioa

### Gaiñera-6an tasatutako hiru etxebizitza besterentzeko esleipenaren aldeko irizpena.

Udal honek, 2022ko maiatzaren 26an egindako udalbatzarrean, Gaiñera auzoa-6n tasatutako familia bakarreko hiru etxebizitza besterentzeko deialdia egitea eta oinarriak onartzea erabaki zuen.

Eskabideak aurkezteko ezarritako epean,

## Contratación

### Adjudicación de la la enajenación de tres viviendas tasadas en Gaiñera-6.

Este Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el 26 de mayo de 2.022, adoptó el acuerdo de realizar la convocatoria y aprobar las bases para la enajenación de tres viviendas unifamiliares tasadas en Gaiñera auzoa-6.

Durante el plazo habilitado para la presen-

eskaera hauek aurkeztu ziren:

Aarón Estevez Marín.
Jennifer Torrecilla Fernandez
Ane López Iturri
Asier Martín San José

Saltzeko dauden hiru etxebizitzen zozketa egin ondoren, Aarón Estevez Marín eta Jennifer Torrecilla Fernandez jaunek idatzi bat aurkeztu dute Udal honetan, bikote direla eta bientzako etxebizitza bakarra interesatzen zaiela jakinarazteko.

Eskatzaileek aurkeztutako dokumentaziotik ondorioztatzen da etxebizitza tasatu horietako baten esleipendun izateko baldintzak betetzen dituztela.
Halaber, Udalbatzari jakinarazi zaio eskatzaile bakoitzak aukeratutako loteak honako hauek direla:

Aarón Estevez Marínek eta Jennifer Torrecilla Fernandezek sorta hau aukeratu dute:

tación de solicitudes, se presentaron las siguientes:
Aarón Estevez Marín.
Jennifer Torrecilla Fernandez
Ane López Iturri
Asier Martín San José

Una ver realizado el sorteo de las tres viviendas a enajenar Aarón Estevez Marín y Jennifer Torrecilla Fernandez han presentado un escrito en este Ayuntamiento comunicando que son pareja y que solamente les interesa una vivienda para los dos.

De la documentación presentada por los solicitantes se concluye que reúnen los requisitos para ser adjudicatarios de una de estas viviendas tasadas.
Asimismo se da cuenta al Pleno, que los lotes elegidos por cada uno de los solicitantes son los siguientes

Aarón Estevez Marín y Jennifer Torrecilla Fernandez han elegido el lote siguiente:

**NÚMERO UNO.-** Vivienda tipo dúplex señalada con la letra A) de planta baja y planta primera del bloque 1, compuesta por salón-comedor, cocina, despensa, baño, entrada y escalera en planta baja y tres dormitorios, baño y distribuidor en planta primera. Tiene una superficie útil en planta baja y primera de (43,70m2) y (40,12m2) respectivamente; y una superficie total útil y construida de (83,82 m2) y (120,30 m2) respectivamente. Linda Norte con porción ajardinada letra A; Sur con finca de Doña Juana Régil (Parcela 70 del polígono 70); Este con carretera de Iurre a Olaberria y Oeste con vivienda tipo dúplex señalado con la letra B.
La finca descrita tiene como ANEJOS:

1) Garaje letra H situado en la planta semisótano del bloque dos, con una superficie útil de (19,64 m2). Linda Norte con garaje letra G; Sur con garaje letra I; Este con galería de instalaciones y; Oeste con finca de Doña María Mercedes Barandiaran (parcela 68 del polígono 3) y finca de Don Gregorio Múgica (parcela 69 del polígono 3).

2) Trastero número UNO situado en la planta semisótano del bloque dos, con una superficie útil de (5,69 m2). Linda Norte con trastero número dos; Sur Garaje letra E; Este con galería de instalaciones; Oeste con vestíbulo de trasteros.

3) La finca descrita tiene uso exclusivo y excluyente sobre la porción ajardinada letra A, compuesta por

jardín, puerta y acera de acceso a vivienda, todo ello vallado y con una superficie útil de (41,59 m2). Linda NORTE con acera de paso, SUR con vivienda tipo dúplex señalada con la letra A, Este con carretera de Iurre a Olaberria y Oeste con porción ajardinada B de la vivienda tipo dúplex señalada con la letra B.
CUOTA: Su valor en relación al todo de la edificación es de 10,85%.
INSCRIPCIÓN.- Tomo 2.335, Libro 37, Folio 34, Finca 1.857.

| | |
|---|---|
| Ane López Iturrik sorta hau aukeratu du: | Ane López Iturri ha elegido el lote siguiente: |

**NÚMERO CUATRO.-** Vivienda tipo dúplex señalada con la letra D), de planta baja y planta primera del bloque dos, compuesta por salóncomedor, cocina, baño, despensa, entrada y escalera en planta baja y tres dormitorios, baño, y distribuidor en planta primera. Tiene una superficie útil en planta baja y primera de (42,97 m2) y (40,25 m2) respectivamente, y una superficie total útil y construida de (83,22 m2) y (120,62 m2) respectivamente. Linda Norte con vivienda tipo dúplex señalado con la letra E; Sur con escalera exterior de un tramo ubicado entre los bloques 1 y 2 que comunica los niveles semisótano y planta baja; Este con porción ajardinada letra D y OESTE con finca de Doña María Mercedes Barandiaran (parcela 68 del polígono 3) y finca de Don Gregorio Múgica (parcela 69 del polígono 3).
La finca descrita tiene como ANEJOS:

1) Garaje letra G situado en la planta semisótano del bloque dos, con una superficie útil de (19,64 m2). Linda Norte con garaje letra F; Sur con garaje letra H; Este con galería de instalaciones y; Oeste con finca de Doña María Mercedes Barandiaran (parcela 68 del polígono 3) y finca de Don Gregorio Múgica (parcela 69 del polígono 3).

2) Trastero número CUATRO situado en la planta semisótano del bloque tres, con una superficie útil de (5,35 m2). Linda Norte con vial de urbanización; Sur con vestíbulo de acceso a trasteros; Este con trastero número cinco; y Oeste con vestíbulo de acceso a trasteros.

3) La finca descrita tiene uso exclusivo y excluyente sobre la porción ajardinada letra D, compuesta por jardín, puerta y acera de acceso a vivienda, todo ello vallado y con una superficie útil de (24,90 m2). Linda Norte con parcela ajardinada E de la vivienda tipo dúplex señalada con la letra E, Sur con escalera exterior de un tramo que comunica los niveles semisótano y planta baja ubicada entre los bloques uno y dos; Este acera de paso; Oeste con la vivienda tipo dúplex señalado con la letra D.
CUOTA: Su valor en relación al todo de la edificación, es de 10,75%.
INSCRIPCIÓN.- Tomo 2.335, Libro 37, Folio 40, Finca 1.860.

| | |
|---|---|
| Asier Martín San Josék sorta hau aukeratu du: | Asier Martín San José ha elegido el lote siguiente: |

**NÚMERO SEIS.-** Vivienda tipo dúplex señalada con la letra F) de planta baja y planta primera del bloque dos, compuesta por salón-comedor, cocina, baño, despensa, entrada y escalera en planta baja y tres dormitorios, baño y distribuidor en planta primera. Tiene una superficie útil en planta baja y primera de (42,99 m2) y (40,05 m2) respectivamente; y una superficie total útil y construida de (83,04 m2) y (120,74 m2 ) respectivamente. Linda Norte con escalera exterior de dos tramos ubicada entre los bloques 2 y 3 y que comunica los niveles de semisótano y planta baja; Sur vivienda tipo dúplex señalado con la letra E; Este con porción ajardinada letra F y Oeste con finca de Doña María Mercedes Barandiaran (parcela 68 del polígono 3) y finca de Don Gregorio Múgica (parcela 69 del polígono 3).

La finca descrita tiene como ANEJOS:

1) Garaje letra F situado en la planta semisótano del bloque dos, con una superficie útil de (19,64 m2). Linda Norte con garaje letra E; Sur con garaje letra G; Este con galería de instalaciones y; Oeste con finca de Doña María Mercedes Barandiaran (parcela 68 del polígono 3) y finca de Don Gregorio Múgica (parcela 69 del polígono 3).

2) Trastero número SIETE situado en la planta semisótano del bloque tres, con una superficie útil de (5,67 m2). Linda Norte con trastero número 6; Sur galería de instalaciones; Este con terreno; y Oeste con trastero número 8 y vestíbulo de acceso a trasteros.

3) La finca descrita tiene uso exclusivo y excluyente sobre la porción ajardinada letra F, compuesta por jardín, puerta y acera de acceso a vivienda, todo ello vallado y con una superficie útil de (24,81 m2). Linda: Norte con acera de urbanización ubicado entre los bloques 2 y 3; SUR con la porción ajardinada letra E; Este con acera de paso; y Oeste con la vivienda dúplex señalada con la letra F.
CUOTA: Su valor, en relación al todo de la edificación, es de 10,76%. INSCRIPCIÓN.- Tomo 2.335, Libro 37, Folio 44, Finca 1.862.

TODAS LAS FINCAS: forman parte integrante del siguiente inmueble: EDIFICACION sita en el BARRIO DE GAÑERA NÚMERO SEIS DE OLABERRIA, destinada nueve viviendas unifamiliares adosadas entre sí, nueve garajes y nueve trasteros, rodeada de terreno propio.

Hori guztia ikusirik, udalbatzak aho batez erabaki du bilkura honetara bertaratu diren 5 kideak honako hauek izatea:

LEHENENGOA: Esleipen hauek egitea:

Aarón Estevez Marín eta Jennifer Torrecilla Fernandezi 1. zenbakiarekin deskribatutako lote % 50ean bakoitzari saltzea. Lote honen prezioa 165.247,98 eurokoa da.

Ane López Iturriri 4. zenbakiarekin deskribatutako lote saltzea. 164.885,36 euro balio du.

Asier Martín San Joseri 6 zenbakiarekin deskribatutako lote saltzea 165.238,43 eurokoa da.

Esleipen horiek salerosketako eskritura publikoak sinatzen direnean eta Tolosako

En vista de todo ello este Ayuntamiento pleno acuerda por unanimidad de los 5 miembros asistentes a esta sesión:

PRIMERO: Realizar las adjudicaciones siguientes:

A Aarón Estevez Marín y Jennifer Torrecilla Fernandez, la venta al 50% a cada uno de ellos del lote descrito como número 1. El precio de este lote es de 165.247,98 euros.

A Ane López Iturri la venta del lote descrito como número 4. El precio de este lote es de 164.885,36 euros.

A Asier Martín San José la venta del lote descrito como número 6. El precio de este lote es de 165.238,43 euros.

Estas adjudicaciones se perfeccionaran en el momento en que se firmen las escritura

Jabetza Erregistroan erregistratzen direnean burutuko dira. Hori guztia aipatutako baldintzen pleguko bederatzigarren klausulan ezarritakoaren arabera.

públicas de compraventa y se registren en el Registro de la Propiedad de Tolosa. Todo ello de acuerdo a lo establecido en la claúsula novena del Pliego de condiciones mencionado.

<u>BIGARRENA:</u> Esleipendunen kontura izango dira salerosketa horiek sortzen dituen gastu eta zerga guztiak, baita eskritura publiko bihurtzekoak eta Jabetza Erregistroan inskribatzekoak ere, hiri-lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zergarena izan ezik (gainbalioa), hori Udalaren kontura izango baita, saltzaile gisa.

<u>SEGUNDO</u>: Son a cargo de los adjudicatarios todos los gastos e impuestos que estas compraventas generen, incluso los de su elevación a escritura pública e inscripción en el Registro de la Propiedad, excepto el del Impuesto sobre el incremento del valor de los terrenos de naturaleza urbana (plusvalía) que es a cargo del Ayuntamiento como parte vendedora.

<u>HIRUGARRENA:</u> Etxebizitza eskuratzeko eta erabiltzeko araubidea jabetzakoa izango da.

Etxebizitza horiek esleipendunen ohiko bizileku iraunkor gisa erabili beharko da, eta udal-etxebizitza tasatuaren kalifikazio iraunkorra izango ditu.

Ondorioz, eskualdatzeko gehieneko prezioari ez ezik, lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideak baliatzeari ere lotuta egongo dira modu iraunkorrean, lehenik eta behin Olaberriko Udalaren alde eta subsidiarioki Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren alde.

<u>TERCERO:</u> El régimen de acceso y uso de las viviendas será en propiedad.

Estas viviendas deberán destinarse a domicilio habitual y permanente de sus adjudicatarios y tendrá la calificación permanente de Vivienda Tasada Municipal.

Consecuentemente, estarán sujetas de forma permanente no solo al precio máximo de transmisión, sino también al ejercicio de los derechos de tanteo y retracto a favor, en primer lugar del Ayuntamiento de Olaberria y subsidiariamente a favor de la Administración General de la Comunidad Autónoma.

Lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea Olaberriko Udal Etxebizitza tasatuak Arautzeko Ordenantzan ezarritako moduan gauzatuko da.

El derecho de tanteo y retracto se efectuará en la forma establecida en la Ordenanza Reguladora de Vivienda Tasada Municipal de Olaberria.

Gehieneko salmenta-prezioa honela

El precio máximo de venta será el

kalkulatuko da: lehenengo eskualdaketa horren prezioari KPI orokorraren aldakuntza-ehunekoa aplikatuta, Udalarekin salerosketa-eskritura sinatzen den egunetik bigarren eskualdaketa egiten den egunera arte.

LAUGARRENA: Udal honetako Alkate-udalburuari ahalmena ematea salmentak perfekzionatzea helburu duten agiri publiko edo pribatu guztiak sinatzeko.

resultante de aplicar al precio de esta primera transmisión el porcentaje de variación del IPC general desde la fecha de firma de la escritura de compraventa con el Ayuntamiento hasta la fecha de la segunda transmisión.

CUARTO: Facultar al Alcalde-Presidente de este Ayuntamiento para la firma de todos aquellos documento públicos o privados cuya finalidad sea la de perfeccionar estas ventas.

**Mozioa**

**EH Bilduk aurkeztutako “OSAKIDETZAKO HERRITAKO ANBULATEGIEN ITXIERAREN AURKAKO ETA OSASUN SISTEMA PUBLIKOA INDARTZEA ESKATZEKO MOZIOA” izendatutako mozioaren onarpena.**

Jarraian, aipatutako izenburuarekin EH Bilduk aurkeztutako mozioaren berri eman zaio Osoko Bilkurari.

Hona hemen edukia:

OSAKIDETZAKO HERRIETAKO ANBULATEGIEN ITXIERAREN AURKAKO ETA OSASUN SISTEMA PUBLIKOA INDARTZEA ESKATZEKO MOZIOA

Osasun Sistema Publikoan, Osakidetzan gertatzen ari dena ez da berria. Azken urteotan Eusko Jaurlaritzak hartutako erabakien ondorio da:

- Etenik Gabeko Arreta Guneak, PAC delakoak,

**Moción**

**Aprobación de la moción suscrita por EH Bildu denominada “MOCIÓN CONTRA EL CIERRE DE AMBULATORIOS DE OSAKIDETZA EN LAS LOCALIDADES Y PARA RECLAMAR EL FORTALECIMIENTO DEL SISTEMA PÚBLICO DE SALUD”.**

Seguidamente se da cuenta al Pleno de la moción presentada por EH Bildu con el título mencionado.

El contenido es el siguiente:

MOCIÓN CONTRA EL CIERRE DE AMBULATORIOS DE OSAKIDETZA EN LAS LOCALIDADES Y PARA RECLAMAR EL FORTALECIMIENTO DEL SISTEMA PÚBLICO DE SALUD

En el Sistema Sanitario Público, lo que está ocurriendo en Osakidetza no es nuevo. Es consecuencia de las decisiones adoptadas en los últimos años por el Gobierno Vasco:

itxi dira, edo ordutegiak murriztu dira.

- Osasun etxeetan izugarrizko profesional gabezia dago. Eta ondorioz, profesional batek, gainerakoen agendak bete behar izaten ditu edo egunerokotasunean 45 kontsulta izaten ditu. Egoera horretan ezinezkoa da pazienteei kalitatezko arreta bermatzea.
- Hainbat eta hainbat osasun etxeetan bizitza osoan izandako zerbitzuak ixten edo murrizten ari dira.
- Kontsulta presentzialak lortzea gero eta zailagoa izaten da. Atzerapenak nabarmen areagotu dira.
- Adinekoen eta kronikoen jarraipenerako gero eta zailtasun handiagoak.
- Osasun sustapena bertan behera geratzen joan da edo ez da behar bezala garatu.

Hau guztia ez da pandemiaren errua, ez zen pandemiarekin hasi. Murrizketak eta planifikazio eza, eta osasun sistema publikoa pribatuaren mesedetan ahultzeko estrategia aspaldiko kontuak dira. Osasun sistema publikoan eman diren atzerapausoak gero eta nabarmenagoak izan dira, bereziki 2018tik gaurdaino. Eta guzti honen ondorioak herritarrek (pazienteek) jasaten dituzte, are gehiago herri txikietan.

Pandemian denok ikusi dugu zein garrantzitsua den kalitatezko lehen mailako arreta izatea, baina, sistema hori indartu beharrean, Jaurlaritza kontrakoa egiten ari da.

Herri txikietan medikura joateko beste herri edo hiri batera joan beharko dute. Hori ez da aldaketa kultural bat, oinarrizko eskubide baten aurkako eraso bat baizik, pertsona guztiok kalitatezko arreta sanitario publikoa jasotzeko eskubidea dugulako, eta hori da orain arriskuan dagoena.

Hori dela eta, Olaberriko udaleko udalbatzak:

1.- Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio urte osoan zehar, uda sasoian barne, herri honetako osasun sistema

• Cierre de los Puntos de Atención Continuada (PAC) o reducción de horarios.
• La falta de profesionales en los centros sanitarios es enorme. Y en consecuencia, un profesional tiene que rellenar las agendas del resto o tiene 45 consultas en el día a día. En estas circunstancias es imposible garantizar una atención de calidad a los pacientes.
• Innumerables centros de salud están cerrando o reduciendo los servicios que hemos conocido desde siempre.
• Conseguir consultas presenciales es cada vez más difícil. Los retrasos se han incrementado considerablemente.
• Dificultades crecientes para el seguimiento de las personas mayores y crónicas.
• La promoción de la salud ha ido decayendo o no se ha desarrollado correctamente.

Todo esto no es culpa de la pandemia, no empezó con ella. Los recortes y la falta de planificación, y la estrategia de debilitar el sistema público de salud en beneficio de la privada son cuestiones que vienen de lejos. Los retrocesos en el sistema público de salud han sido cada vez más pronunciados, especialmente desde 2018 hasta la actualidad. Y las consecuencias de todo esto las sufren los ciudadanos (pacientes), más aún en los pueblos pequeños.

En la pandemia todos hemos visto lo importante que es tener una atención primaria de calidad, pero, lejos de reforzar este sistema, el Gobierno está haciendo lo contrario.

Para ir al médico en pueblos pequeños tendrán que ir a otro pueblo o ciudad. Esto no es un cambio cultural, sino un ataque a un derecho fundamental, porque todas las personas tenemos derecho a una atención sanitaria pública de calidad, que es lo que ahora está en peligro.

Por todo ello, el pleno del ayuntamiento de Olaberria:

1.- Exige al Gobierno Vasco que garantice los

publikoak eskaintzen dituen zerbitzuak bermatu ditzala.

2.- Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio lehentasunez mediku egoiliarren kontratazio -eredua aldatu dezala, kontratu egonkorrak eta lehen arretan euren garapen profesionalerako ibilbidea ahalbidetuko dutenak bermatuz.

Halaber, gainerako osasun profesionalen kontratazio baldintzak hobetzeko xedearekin, aztertzea Osakidetzan kontratazio irizpideak aldatzea, beti ere egonkortasuna eta garapen profesionala sustatuz, horrela Osakidetza erakargarriago bilakatzeko eta indartzeko.

3.- Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Lehen Arretako eskaintzen duten mediku, erizain eta gainerako osasun profesional kopurua handitu dezala. Diziplina anitzeko lantaldeak sortuz, non beste profil profesional batzuk txertatuko diren, hala nola geriatrak eta fisioterapeutak.

servicios que ofrece el sistema sanitario público de este país durante todo el año, incluida la época estival.

2.- Exige al Gobierno Vasco que modifique prioritariamente el modelo de contratación de los médicos residentes, garantizando contratos estables y que permitan un itinerario de desarrollo profesional de los mismos en atención primaria.

Asimismo, con el objetivo de mejorar las condiciones de contratación del resto de profesionales sanitarios, analizar la modificación de los criterios de contratación en Osakidetza, promoviendo la estabilidad y el desarrollo profesional, para hacer más atractiva y potenciar Osakidetza.

3.- Exige al Gobierno Vasco que incremente el número de médicos, enfermeras y demás profesionales sanitarios que ofrecen Atención Primaria. Creando grupos de trabajo multidisciplinares en los que se incorporen otros perfiles profesionales como geriatras y fisioterapeutas.

Bozketa egin da, eta aho batez onartu da.

Se somete a votación la aprobación de la misma, resultando aprobada por unanimidad.

## Galdera eta erreguak

## Ruegos y preguntas

Aitor Urkiola EH Bilduko zinegotziak hartu du hitza, eta honako eskaera eta/edo galdera hauek egin ditu:

Toma la palabra el concejal de EH Bildu Aitor Urkiola para realizar los siguientes ruegos y/o preguntas:

**LIMPIEZAS ABANDO:**

Hitzarmen zaharra eta berriko langileen konparaketa egin ondoren, guri ez digu kuadratzen

langileei nola ari diren ordainketak egiten eta zalantzak ditugu:

- Paga de beneficios martxokoa ez dakigu ordaindu dieten…
- Aintzinatasuna lanaldi osoari dagokiona, hirurtekoak 35,48 bada, hitzarmen berrian, non Gipuzkoako hitzarmenak 36,03 ezarrita duenean?
- Uztaileko paga ulertzen degu hitzarmen berriaren igoerakin aplikatu gabe ordaindu dietela.

Nomina zaharrak eta berrien alderaketa egitea (kontratu berriarekin) egin beharren gaudela uste dugu eta egin behar dugu udal bezela.

Datozen hilabeteetan jarraipena egitea eskatzen degu, nominak ondo ordaintzen ari diren ziurtatzeko.

**Tiro plato eremuko garbiketa prozesuaren egoera**

Eremu honetako lurzoruen inguruan uztail bukaerarako informe definitiboa izango genukeela aipatu zuen Pedrok aurreko bileran,  esku artean ezarri nahi diren neurri zuzentzaileekin, zein izango diren ezartzen dituzten neurriak erabakitzeko.

Iritsi da informea? Egin diren muestreo berriak, Emaitzak baditugu? egin den alternatiba ezberdinen estudioan, garrantzitsuena zera iruditzen zaigu: EJra bidaliko den estudioak zer esatera datorren eta zer bidaliko den eta puntu nagusiak zein izango diren. EKOSen arabera, EJk ez omen dauka experientzirik horrelako garbiketa lanetan.

EKOSen txostena iristen denean, txostena bera guri helaraztea eskatzen dugu eta bide batez EJra bidali aurretik, EKOSekoekin eta Udal teknikariekin biltzea eskatzen dugu, gaiaren nondik norakoaz hitzegiteko.

**AHTko eremuko errekaren egoera**

2022-06-02an ikuskaritza egin genuen erreketako arduradunekin. Bertan zalantza batzuk atera ziren. ETSk betelanari buruzko txostena, EJk jasota ote duen zalantza atera zen eta Estibaliz aparejadora geratu zen hau horrela egin den ziurtatzeko. Oraindik ez dakigu egin den edo nola dagoen.

**Eta aztertzeko beste gairik egon gabe, Alkate jaunak bukatutzat ematen du bilkura 14ak eta 50 minutu direnean, eta nik, Udalbatzako Idazkariak, adierazitako guztiaren Akta egiten du.**

**Y sin más asuntos por tratar, el Sr. Alcalde da por terminada la sesión cuando son las 14 horas 50 minutos y yo, Secretario de la Corporación, expido el Acta de todo lo manifestado.**

**ALKATEA / EL ALCALDE**

**IDAZKARIA / EL SECRETARIO**

OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA